

Jaun agurgarria:

Aurreko irailak 4an, Ibaiondo L.H.I.ko IBAILAKUA GURASO ELKARTEAREN hezkuntza batzordearen ordezkariak, Denon Eskolako ordezkari bat lagunduta, zurekin bildu ziren Lurralde Ordezkaritzaren egoitzan. Bertan, gure Ikastetxeko funtzionamenduari harreman zuzena duten garrantzi handiko arazoak mahairatu zizkizuten. Bileraren ondorioak, 2005eko urriaren 26an izandako asanbladan azaldu ziren guraso guztien aurrean. Zuregandik jasotako erantzunak haserre piztu zuen bertaratuakoen artean. Horren ondorioz idazki hau zureganatzea erabaki zen batetik, ezetzak baino ez zirelako bildu, eta, horrekin batera, etorkizunari begira, arazoei aurre egiteko hartu behar diren neurriak bermatzeko zehaztapen minimoen falta sumatu zirelako. Oso garbi daukagu, gainera, bideratu ezean, gaurko arazoak larriagoak bihurtuko direla etorkizunean.

Gogora ekarri nahi dizugu gure eskaerak hiru ataletan zehaztuta daudela:

1.- Eskola Garraioa

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren arduradunen prebisio falta kronikoaren ondorioz, gure familia asko eta asko beren seme-alabak zonaldekan kanpo zegoen Ikastetxe batera bidali beharrean aurkitu ziren, kasuak kasu gurean Pio Baroja zaharraren egoitzara. Datorren ikasturtean familia horien egoera larriagoa izango da behin betiko egoitzara pasatuko garelako eta zurekin izandako elkarriketaren adizter eman zenigun gure seme-alabentzako garraio zerbitzua bertan behera geratuko zela Ibaiondora pasatzearekin batera.

Hala ere, eraikuntza berria Ikastetxeari dagokion zonaldearen bazter batean kokatua dago. Guraso Elkarteak egindako ikerketa baten arabera batez besteko distantziak kilometro bat eta kilometro eta erdiko tartekoak izango dira 40 bat umerentzako eta kilometro eta erdi eta bi kilometro tartekoak beste 50 bat umerentzako. Ibilbide horiek egunean lautan egin beharko dituzte gure seme-alabek, guztiak 3 eta 5 urte bitartekoak (ikasleriaren ehuneko ehuna) eta eguraldi egoera guztietan.

Ulertzeko da aparteko egoera horri aparteko erantzunak eman behar zaizkiola. Era berean, esan beharra dago orain artean berezia izan den garraio zerbitzua mantentzeko irizpideak jarraitu egiten dutela ikasle kopuru handi batentzako batetik adin txikia eta bestetik etxeetatik Ikastetxeraino distantzia handia. Jakitun gara Arabako hainbat Ikastetxetan halako egoerak ematen direla eta nahiz eta legeak esan joan eta etorriak baino ez direla lagunduko lau bidai egiten dira. Hori del eta, ez dugu ulertzen nola ez den posiblea garraio zerbitzu hori mantentzea hain txikiak diren ume kopuru horrentzako, 90 inguru, batez ere ikusita zer nolako ibilbide luzeak egin behar izango dituzten egunean zehar.

2.- Laugarren lerroa

Berriz ere, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren arduradunen prebisio falta kronikoaren ondorioz, urterik urte ikusten ari gara nola Lurralde Ordezkaritzatik inposatzen ari den laugarren lerro bat zabaltzea gure Ikastetxean ikasle sorta baten eskolaratze prozesua bideratu ahal izateko.

Begi bista da ezohiko egoera horri egokiro erantzuteko beste Ikastetxe berri baten beharra dagoela beste zonalde banaketa egiteko eta dauden soberakinak partitzeko, bai berrietan baita betikoetan ere. Dakizunez, Ibaiondo Ikastetxea sortu zeneko planifikazioa hiru lerrokoa zen. Dagoeneko bi ikasgela ditugu soberan eta beldur gara, etorkizunean, laugarren lerro hori kokatu izanak zein eragina izango duen tailerretan, erabilera osagarritzako geletan (ingelesa, musika, plastika ...) liburutegian etab. .

Lau lerroko ikastetxea ezartzea zentzugabekeria da: kudeatzeko zailtasunak, hezkuntza kalitatean eragina duen inguruaren masifikazioa, eta beste hainbat arazo. Gaur egun ez dago Araba osoan lau lerroko Ikastetxe publikorik, ohikoena bi lerrokoa da. Masifikazio arazoak areagotuko dira Ibaiondo aldean oraindik ere etxebizitzak egiten eta ematen ari direlako eta aurreikusten den jaitze-tasak gorantz egiten duelako zonaldearen biztanle berriak bikote gazteak direla eta.

3.- Heziketa Integrala

Eguno egoera ikusirik, aurreikusteko modukoa da orain Haur Hezkuntzan daukagun arazoa urte batzuren buruan errepikatuta ikusiko dugula Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Hiru lerroko berreskuratzetik aparte, ezin hobea izango litzateke Bigarren Hezkuntza txertatzea. Hori dela eta, berriz ere, dei egiten dizugu, Ikastetxearen barruan dagoen orubean Bigarren Hezkuntza kokatzeko aukera baloratzeko. Horrela, gure seme-alabak ez dira berriz ere mugitu behar, auskalo nora, gure zonaldekan kanpo. Nabarmena da Mendebaldeko institutua gainezka dagoela egun dituen ikastetxeekin Toki Eder, Barrantia eta Abendaño besteak beste. Kontuan izan, honez gero, heziketa integrala eskaintzen duten Ikastetxeak baditugula Araban eta guztiak ospe onekoak. Duela urte pare bat Hezkuntza Sailburuak oso garbi azaldu zuen Bilboko Mina del Morro KARMELO IKASTOLAn Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza uztarturik eramateko apustua (Gara egunkaria 2003-09-04). Hori baino ez dugu eskatzen, besteetan eskaintzen den kalitatea. Beraz, arazoei aurrea hartu eta bide batez, egungoak bideratu.

Aurreko guztia kontuan hartuta zera **ESKATZEN DUGU**:

1. **Kilometro bat baino gehiagoko ibilbidea dutenentzako doako garraioa.**
2. **Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe berri baten irekiera gurean lerro berriak behin eta berriro irekitzeak sorrarazten dituen arazoak ekiditeko.**
3. **Implikaturako guztiakin harremanetan jartzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eraikuntza bideratzeko.**

Gure ustez eskaera horiek guztiak zentzukoak eta bidezkoak dira.

Azkenik, aukera aprobetxatu nahi dugu hausnarketa bat egiteko: Ibaiondo Ikastetxeko gurasook, zure Sailak inbertsotan egindako ahalegina aintzat hartuta ere, Hezkuntza Saileko arduradunek egiten duten plangintza okerra behin eta berriz konpontzen saiatu behar dugunaren sentsazioa daukagu. Ikastetxea zabaldu zenetik arazo larriak izan ditugu bidelagun: Pio Baroja Ikastetxea presaka moldatu eta egokitu beharra, egitura akatsak zuzendu (aparkalekurako arrapala eskailerak ordezkatzeko, premia bereziak dituzten umeentzako igogailua, ekipamenduaren faltak ikasturtearen hasieran eragin dituen arazo eta atzerapenak eta abar. Arazo hauek, aurrekoan esan bezala, areagotu egingo dira Ibaiondo Ikastetxeak zerbitzua eman behar duen zonaldean daukan kokapen okerrarengatik.

Gure Ikastetxeko Hezkuntza Elkartearen pertsona gazte, dinamiko eta ekintzailez osaturik dago gure seme-alaben hezkuntza kalitatearen hobekuntzaren alde beren esperientzia eta lana emateko prest. Iraganean sumatu ditugun akatsak, denon artean, ahalik eta hobekien konpontzen saiatu bagara ere, bada garaia lan pedagogikoa eta hezkuntza jarduera oztoporik gabe garatzeko. Ez dezagun eragotzi giza talde baten lana eta ilusioa biderakaitza den lau lerroko Ikastetxe bat abian jartzen, gainera bigarren hizkuntzarik gabe eta Eskolara joan-etortzeko kilometroak egin behar dituzten ume txikiak osatuta.

Gure seme-alabentzako onura baino ez dugu nahi eta gure ustez eskaera hauek zentzukoak eta bidezkoak dira.

Asanbladaren asmoa bada bai Lurralde Ordezkaritzan baita Lakuako Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean, askatasun osoz, bere haserrea adieraztea manifestazio baten bidez.

Oharra: Erantzun argia eta egokia jaso ezean, ondorengo egunetan komunikabideen artean zabalduko da idazki honen kopia gure eskaerak oihartzun publikoa izateko.

Besterik gabe erantzun azkar eta bidezko baten zain geratzen gara.

Adeitasunez

Fdo. Jesús M^a Labarga Moreno

IBAILAKUA GURASO ELKARTEAREN PRESIDENTEA